



[www.hetel.org](http://www.hetel.org)

## **Lanbide Heziketan klabeak diren gaitasunak:**

**Gaitasun horiek lantzeko eta  
ebaluatzeko hainbat jarraibide**

**Pedagogia berrikuntzarako batzordea**

**2008ko maiatza**



**Lanbide Heziketan klabeak diren gaitasunak:  
Gaitasun horiek lantzeko eta ebaluatzeko hainbat ekarpen**

**Pedagogia berrikuntza**

**Aurkibidea**

1.- Sarrera .....	3. orrialdea
1.1.- Lan honen funtsa .....	3. orrialdea
1.2.- Egileak .....	3. orrialdea
1.3.- Lan metodologia .....	4. orrialdea
1.4.- Aurkeztutako lanaren ezaugarriak .....	4. orrialdea
1.5.- Gure esker ona lan batzordeko kideei, ikastetxeei eta Koalifikazioen Euskal Institutuari.....	4. orrialdea
2.- Lanbide heziketan klabeak diren gaitasunak .....	5. orrialdea
2.1.- Nork bere kabuz ikastea .....	6. orrialdea
2.2.- Egokiro komunikatzea .....	7. orrialdea
2.3.- Taldean lan egitea .....	8. orrialdea
2.4.- Gatazkak prebenitu eta gainditzea.....	9. orrialdea
2.5.- Arazoak konpontzea .....	10. orrialdea
2.6.- Ekintzaile izatea .....	11. orrialdea
2.7.- Inguruari egokitzea .....	12. orrialdea
2.8.- Etengabeko ikaskuntzarako interesa .....	13. orrialdea
2.9.- Laneko arriskuak prebenitzea .....	14. orrialdea
2.10.- Berrikuntza .....	15. orrialdea
2.11.- Klabeak diren gaitasunak eta ikaste prozesuaren emaitzak .....	16. orrialdea
2.12.- Klabeak diren gaitasunak, ikaste prozesuaren emaitzak eta ebaluatze irizpideak .....	17. orrialdea
3.- Gaitasunak lantzeko hainbat argibide .....	21. orrialdea
3.1.- Klabeak diren gaitasunak eta gaitasun horiek lantzeko zenbait bide ..	21. orrialdea
4.- Gaitasunak ebaluatzeko hainbat argibide .....	22. orrialdea
4.1.- Klabeak diren gaitasunak eta gaitasunak ebaluatzeko hainbat bide ..	22. orrialdea
4.2.- Ebaluazio prozesua gauzatzeko hainbat iradokizun .....	23. orrialdea

## 1. - Sarrera.

### 1.1. Lan honen funtsa

2007an Pedagogia Berrikuntzako Batzordeak gaitasunen araberako ebaluazioari buruzko ekarpen bat egin zuen.<sup>1</sup> Hasteko, KEI-ren (Kualifikazioen Euskal Institutuaren) laguntzaz, gaitasun kontzeptua aztertu genuen. Bestetik, bibliografian arakatu eta Mendeberrri proiektua garatzean Mondragon Unibertsitateak (bereziki, ETEO Enpresen Administrazioa Lizentziaturan) izan duen esperientzia izan genituen inspirazio iturri.

Ondoren, zeharkako hainbat gaitasun hauteman eta aukeratu ziren. Gaitasun horiek, hain zuzen, Heziketa Zikloetako ikasleek lortu beharko lituzkeen helburu moduan erabilgarriak izango litzateke. Aipatu gaitasunak zehazteko, hainbat eredu eta proiektu aztertu ziren (Mendeberrri, Cataluniako Jesuitek egindako lana, etabar). Horrez gain, Pedagogia Berrikuntzako Batzordeak aurrez ezarritako (2005eko azaroan) "Ikasle idealaren profila" hartu zen kontuan eta batez ere, Hezkuntza Sistematan Lanbide Heziketaren ordenamendua arautzen duen Errege Dekretua<sup>2</sup>.

Garai hartan, heziketa zikloetako tituluak aldatu nahi ziren. Horrela, 2007an hasi eta 2009an amaituko den prozesu baten bidez, Lanbide Heziketako titulu berriak ezarri nahi ziren. Titulu Oinarrien Garapen berrietan (TOG, titulu berriak arautzen dituzten Errege Dekretuak, 5. artikulua - Gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak), zehaztu egiten dira zeintzuk diren ikasleek lortu behar dituzten gaitasun profesionalak, sozialak eta pertsonalak. Zerrendak luzeak dira eta bertan ez dira gaitasun motak bereizten (profesionalak/pertsonalak/sozialak)<sup>3</sup>.

### 1.2. Egileak

Lan hau 2007ko urtarriletik 2008ko ekainera arte Pedagogia Batzordean izan diren kideek egin dute:

- Iñaki Resa eta Ioseba Laforga (Gasteizko Diocesanas ikastetxea)
- José Antonio Abarca eta Ismael Barbero (Gasteizko Jesús Obrero ikastetxea)
- Daniel Irazola (Durangoko Maristak ikastetxea)
- Xabier Uranga eta Maria Madarieta (Lea Artibai ikastetxea)
- Belén Corral (Muskizko Somorrostro irakasgunea)
- Soiartze Pérez de Viñaspe (San Viator ikastetxea)
- José Ignacio García (Zeanuriko Zulaibar ikastetxea)
- Ainitze Arratibel (Zumarragako Urola Garaiko Lanbide Eskola)

<sup>1</sup> 2004ko urrian sortu zenetik, Pedagogia Berrikuntzako Batzordeak hainbat ekarpen egin ditu. Ekarpene horiek guztiak Elkarteko web orrian dituzue ikusgai: [http://www.hetel.org/documentos-eu/doc\\_innovacion-eu](http://www.hetel.org/documentos-eu/doc_innovacion-eu)

- *Ikasle bikainaren ezaugarriak, garapen metodologikoak, eremu nahiz baliabide didaktikoak eta irakaslearen ezaugarriak.*  
 - *Tutorearen ezaugarriak.*  
 - *Ikasgelan jarduteko gida: ikaskuntza errazten edo bideratzen duen irakaslearen hamabi arauak.*

<sup>2</sup> 2006ko abenduaren 15eko 1538/2006 Errege Dekretua (BOE 2007.01.03), konkretuki Lanbide Heziketako ikasketei buruzko 3. Artikuloa

<sup>3</sup> *Mintzagai ditugun gaitasunak zehaztasun handiagoz aztertu dira argitaratutako 7 tituloetarako: erdi mailako hiru (mekanizazioa; soldadura eta galdaragintza; instalazio elektrikoak eta automatikoak) eta goi mailako lau (laborategia eta analisi klinikoa; fabrikazio mekanikoko produkzioaren antolamendua; haur hezkuntza; eraikuntza metalikoa)*

- Gauden Apaolaza (Irungo La Salle ikastetxea)
- Jorge Mancisidor (Ordiziako Goierri Lanbide Eskola)
- Xabier Sarasola (Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxea)
- Rafael Sánchez (Urnietako Salesiarrak ikastetxea)
- Amaia Guijarro (HETEL)

### 1.3. Lan metodologia

Hona hemen lanerako baliatu den metodologia:

- Hilean behin bildu izan gara. Bilerak bi ordu ingurukoak izan dira.
- KEI-ren eta Mondragon Unibertsitatearen (LADE, ETEO) ekarpenak jaso ditugu.
- Orain urtebete (2007ko maiatzean) Taldeak 9 gaitasun hauteman eta aukeratu zituen 1.1. puntuaz aldatzen den *mapping* ariketa egin ondoren.
- Ondoren, Heziketa Ziklo berriak arautzen dituzten Errege Dekretuak kontuan hartuta, aukeratutako gaitasunak berrikusi egin zituen.
- Gaitasunak aztertzean, baten bat aldatu eta 10. gaitasuna –Berrikuntza– gehitu zuen, batez ere, goi mailako hezkuntza zikloei begira.

Hautatutako gaitasunak garatzeko orduan, Deustuko Unibertsitateak gauzatutako eta argitaratutako lan itzela baliatu dugu inspirazio iturri gisa: Aurelio Villa eta Manuel Pobrete, Aprendizaje basado en competencias – Una propuesta para la evaluación de las competencias genéricas, Berrikuntza eta Kalitateko Errektoreordetza, Deustuko Unibertsitatea, Ediciones Mensajero, Bilbo 2007, ISBN: 978 – 84 – 271 – 2833 – 0. Biziki erabilgarria den liburu horretan, 35 gaitasun orokor ageri dira guztira: 20 gaitasun orokor instrumental ageri dira, pertsona arteko 7 gaitasun orokor eta 8 gaitasun orokor sistemiko.

### 1.4. Aurkeztutako lanaren ezaugarriak

Lan honek ibili beharreko bidea erraztuko digu. Geure aburuz garrantzitsuenak diren gaitasunak aztertu ditugu. Horrela, bada, gaitasun bakoitzaren definizioa eman dugu, baita ikaste prozesuan lortuko diren emaitzak eta ebaluazio irizpideak zehaztu ere. Horrez gain, aipatu egingo ditugu gaitasun horiek lantzeko eta ebaluatzeko zenbait bide.

Ikastetxe bakoitzak zehaztu egingo du mintzagai ditugun gaitasunak nola garatu eta ebaluatuko dituen.

### 1.5.- Gure esker ona lan batzordeko kideei, ikastetxeei eta Kualifikazioen Euskal Institutuari.

Lan hau gauzatzea ezinezkoa izango litzateke ikastetxeen eta Pedagogia Batzordeko kideen laguntzarik gabe. Beraiei gure esker ona. Horiez gain, KEI Kualifikazioen Euskal Institutuko ordezkariak zenbait auzitan hartu dute parte. Berorien laguntza ezinbestekoa izan da gure egitekoa gauzatu ahal izateko. Horiei ere, proiektuan parte hartu izana eskertu nahi diegu.

## 2- Lanbide heziketan klabeak diren gaitasunak

Lanbide heziketaren alorrean, funtsezko 10 gaitasun zehaztu ditugu.

GAITASUN MOTAK	GAITASUNAK
PERTSONALAK	1- Nork bere kasa ikastea
KOMUNIKATIBOAK	2- Egokiro komunikatzea
SOZIALAK	3- Taldean lan egitea
	4- Gatazkak prebenitu eta gainditzea
PROFESIONALAK	5- Arazoak ebaztea
	6- Ekintzaile izatea
	7- Inguruari egokitzea
	8- Etengabeko ikaskuntzarenganako interesa
	9- Laneko arriskuak prebenitzea
	10- Berrikuntza

### Erdi mailako eta goi mailako hezkuntza zikloetako ikasleak

Erdi mailako heziketa zikloetako ikasleak nahiz goi mailako heziketa zikloetako ikasleak dira 10 gaitasun horiek garatu beharko lituzketenak.

Gaitasunak berrikustean, 10. gaitasuna –Berrikuntza– gehitu genuen bi arrazoiengatik. Batetik, uste dugulako gaitasun horrek garrantzi handia duela geurearen moduko gizarteetako bizitza profesionalean nahiz pertsonalean. Bestetik, hainbat Errege Dekretuk goi mailako zenbait heziketa zikloetako (TGO) Tituluak Garatzeko Oinarriak zehazten dituztelako. Dekretu horiek, besteak beste, ondoko gaitasunak jasotzen dituzte: berritzeko eta eguneratzeko gaitasuna; berrikuntza sustatzea, hobekuntza eta egokitzea, eta abar.

Geure iritziz, erdi mailako nahiz goi mailako ikasketak egiten ari direnek gaitasun horiek guztiak edo horietako batzuk garatu beharko lituzkete. Esan gabe doa bi maila horietako ikasleen abiapuntua nahiz jomuga desberdinak direla: erdi mailako ikasleek ez dituzte beren gaitasunak guztiz garatu; goi mailako ikasleekin, aldiz, eskakizun maila handiagoa izan behar dugu.

## 2.1. Nork bere kasa ikastea.

### 2.1.1.- Definizioa

Modu autonomoan ezagutza berriak bilatzea, barneratzea eta aplikatzea.

### 2.1.2.- Elementuak eta ebaluazioa

<i>Klabeak diren gaitasunak</i>	<i>Ikasketa prozesuaren helburuak</i>	<i>Ebaluazio irizpideak</i>
Nork bere kasa ikastea	1- Heziketarako /ikasketa prozesurako baliabide egokiak <b>bilatu</b>	1.- Hainbat informazio iturri ezagutzen ditu. 2- Badaki zenbait informazio iturri erabiltzen.
	2- Informazioa <b>antolatu</b> eta <b>lehenetsi</b> .	1.- Bildutako informazioa aztertu eta ikasketa prozesuko beharren arabera sailkatzen du.
	3- <b>Modu autonomoan</b> bere ikasketa prozesua <b>antolatu</b> .	1.- Modu autonomoan kudeatu dezake bere ikasketa prozesua. 2- Ikasi nahi duenarekin bat datozen ikasketa teknikak erabiltzen ditu.
	4- <b>Modu aberasgarrian</b> ikasi	1- Ikasitakoa hainbat egoeratan baliatu dezake.

### 2.1.3.- Nola landu

Ondoko hauen bidez:

- *Problem Based Learning*, hots, AOI arazoetan oinarritutako ikasketa prozesuaren bidez.
- Modu autonomoan ikastea sustatzen duten jardueren bidez (webquest, Moodle-ren gisako e-learning plataformak, eta abar).
- Ikerketa dokumentalaren bidez.
- Mapping – laburpenaren bidez.

### 2.1.4.- Nola ebaluatu

Ondoko hauen bidez:

- Ikasgelan / tailerrean / laborategian ikaslearen jarraipena eginez (planifikazio pertsonala).
- Ebaluazio akademikoaren bidez, edukiak zein mailatan barneratu diren neurtuz.

## 2.2. Egokiro komunikatzea

### 2.2.1.- Definizioa (pertsoneko komunikazioa)

Beste pertsona batzuekin modu positiboan harremanean egotea. Interakzio horretan, ahoz nahiz ahozkoak ez diren zenbait adierazpen medio, ikasleek pentsatzen edota sentitzen dutena argi adierazi behar dute, baita entzute enpatikoa praktikan jarri ere.

### 2.2.2.- Elementuak eta ebaluazioa

<i>Klabeak diren gaitasunak</i>	<i>Ikasketa prozesuaren helburuak</i>	<i>Ebaluazio irizpideak</i>
Egokiro komunikatzea	1- <b>Entzute</b> aktiboaz baliatu	1- Isilik dago besteek hitz egiten dutenean eta ez du haien mintzoa eragozten. 2- Galderak egiten ditu hobeto ulertzeko. 3- Besteen ideien inguruko interesa agertzen du.
	2- <b>Nork bere burua adierazi</b> (hizlariari buruz pentsatzen duena argi esan / hizlaria mindu gabe)	1- Argi adierazten du pentsatzen duena, zintzotasunez eta konplexurik gabe. 2- Eztabaidan aritzen da, besteak iraindu gabe eta bere burua mintzen utzi gabe
	3- <b>Feed-backa</b> erabili (berrelikadura)	1- Adibide eta bestelako baliabide andana erabiltzen ditu egoera hobeto ulertarazteko. 2- Hizlariak faltan duena ikusi eta galdera egokiak egiten ditu berrelikadura errazteko. 3- Besteen ideiak barneratzen ditu.
	4- Elkarrizketa eraikitzailearen aldeko <b>giroa</b> sortzen lagundu	1- Ez du bere iritzia ezartzen kosta ala kosta; hizlaria errespetatu eta haren azalpenei adi egon ohi da. 2- Besteen lekuan jarri ohi da (enpatia). 3- Besteek parte hartzearen alde egin ohi du.
	5- Ahozkoa nahiz ahozkoa ez den komunikazioa egoerari zein hizlariari <b>egokitu</b>	1- Bere burua aurkezten du; ahozko mezuarekin nahiz egoerarekin bat datozen mugimenduak eta keinuak egin ohi ditu. 2- Erabili dezakeen denbora kontrolatzen du. 3- Testuinguru bakoitzean egoki den komunikazio tresna erabiltzen du. 4- Ekarpen zehatzak egiten ditu ("harira doa").

### 2.2.3.- Nola landu

Ondoko hauen bidez:

- Arazoak ebatziz (*Problem Based Learning* – AOI)
- Kasu metodoa baliatuz
- Proiektuak garatuz
- Taldeko lanaren bidez
- Jendaurrean aurkezpenak eginez (aurkezpenak grabatuz, adibidez)

### 2.2.4.- Nola ebaluatu

Ondoko hauen bidez:

- Ikasgelan / tailerrean / laborategian ikasleen jokabidea behatuz
- Autoebaluazioaren bidez
- Bere gelakideen ebaluazioaren bidez

## 2.3. Taldean lan egitea

### 2.3.1.- Definizioa

Helburu komunak lortze aldera, beste pertsona, alor edota erakundeekin modu aktiboan elkarlanean aritu. Talde koordinazioa barne.

### 2.3.2.- Elementuak eta ebaluazioa

<i>Klabeak diren gaitasunak</i>	<i>Ikasketa prozesuaren helburuak</i>	<i>Ebaluazio irizpideak</i>
Taldean lan egitea	1. Taldearen <b>kohesioa</b> sustatu.	1. Taldean ezarritako arauak onartzen ditu. 2. Taldekideekin harreman ona du ("kendu baino, ekarpenak egiten ditu").
	2. Taldeko lana <b>planifikatu (eta koordinatu)</b>	1. Helburuak eta zereginak proposatzen ditu 2. Plangintzan parte hartzen du (ekintzak, tenporalizazioa, baliabideak). 3. Laneko helbururen baten ardura hartzen du bere gain. 4- Helburua lortze aldera, taldeko kideen ahaleginak bateratzen ditu.
	3. Taldeko lana <b>egin</b>	1. Esleitu dizkioten atazak egiten ditu. 2. Epeak betetzen ditu. 3. Esleitutako zereginen ezaugarriak betetzen ditu (kalitatea). 4. Taldeari bere ezagutzak, esperientzia,... ekartzen dizkio.
	4. Taldeko lana <b>ebalatu</b>	1. Modu eraikitzailean aztertzen du taldeak jarraitutako prozesuaren eta lortutako emaitzen arteko lotura. 2. Prozesua betetzeko eta emaitzak lortzeko zein ekarpen egin duen ebaluatu ohi du.

### 2.3.3.- Nola landu

Ondoko hauen bidez:

- Arazoak gaituz (*Problem Based Learning – AOI*)
- Kasu metodoa aplikatuz
- Proiektuak garatuz
- Taldean lan eginez
- Hobekuntza taldeen bidez
- Jendaurrean aurkezpenak eginez
- Ideia lehiaketak antolatuz, taldean edo ikastetxean egon daitezkeen egoerak edo arazoak ebazteko.

### 2.3.4.- Nola ebaluatu

Ondoko hauen bidez:

- Ikasgelan / tailerrean / laborategian ikasleen jokabidea behatuz
- Autoebaluazioaren bidez
- Bere gelakideen ebaluazioaren bidez
- Proiektuak / lanak ebaluatuz

## 2.4. Gatazkak prebenitu eta gainditu

### 2.4.1.- Definizioa

Zeinahi antolakuntza motan pertsonen edota taldeen artean egon litezkeen aldeak landu eta gainditu.

### 2.4.2.- Elementuak eta ebaluazioa

<i>Klabeak diren gaitasunak</i>	<i>Ikasketa prozesuaren helburuak</i>	<i>Ebaluazio irizpideak</i>
Gatazkak prebenitu eta gainditu	1.- Gatazka <b>prebenitu</b> eta gutxitu	1.- Gatazken iturri izan daitezkeen egoerak hautematen ditu. 2.- Egoera horiek sortzea saihesten du.
	2.- Egoera gatazkatsua <b>aztertu eta ulertu</b>	1.- Gatazkaren gain hausnartzen du zer gertatzen ari den ulertzeko.
	3.- Bere burua <b>adierazi</b>	1.- Argi adierazten du pentsatzen duena. 2.- Eztabaidan aritzen da, besteak iraindu gabe eta bere burua iraintzen utzi gabe
	4.- <b>Entzute</b> aktiboaz baliatu	1- Isilik egon ohi da besteek hitz egiten dutenean eta ez du besteen mintzoa eragozten. 2.- Galderak egiten ditu hobe ulertzeko 3- Besteen ideianganako interesa agertzen du.
	5.- Gatazkaren aurrean beste aukera batzuk eta <b>irtenbide onargarriak</b> bilatu	1.- Besteen proposamenak ondo hartzen ditu eta adostasunaren mesedean zenbait aspektutan amore ematen du 2.- Jarrera desberdinak bateratzen eta adosten saiatzen da, taldekide guztientzako zuzenak diren akordioak lortzeko. 3. Zenbait irtenbide proposatzen ditu

### 2.4.3.- Nola landu

Ondoko hauen bidez:

- Arazoak ebatziz (*Problem Based Learning* – AOI)
- Kasu metodoa aplikatuz
- Proiektuak garatuz
- Taldean lan eginez
- Hobekuntza taldeen bidez
- Ideia lehiaketak antolatuz, taldean edo ikastetxean egon daitezkeen egoerak edo arazoak ebazteko.

### 2.4.4.- Nola ebaluatu

Ondoko hauen bidez:

- Ikasgelan / tailerrean / laborategian ikasleen jokabidea behatuz
- Autoebaluazioaren bidez
- Bere gelakideen ebaluazioaren bidez

## 2.5. Arazoak konpontzea

### 2.5.1.- Definizioa

Arazoa osatzen duten elementu nagusiak hauteman, aztertu eta definitu, irtenbide burutsuak eta eraginkorrak aurkitze aldera.

### 2.5.2.- Elementuak eta ebaluazioa

<i>Klabeak diren gaitasunak</i>	<i>Ikasketa prozesuaren helburuak</i>	<i>Ebaluazio irizpideak</i>
Arazoak konpontzea	1. Arazoa <b>hauteman</b>	1. Arazoak eta arazo ez direnak hauteman ditzake. 2. Arazo zailak zatikatu egiten ditu eta lantzeko errazagoak diren parteetan banatu.
	2. Arazoa <b>definitu</b> (informazioa bildu)	1. Arazoa zehazteko, adi egon ohi da, irakurri ohi du edo galderak egiten ditu. 2. Hainbat iturri alderatu eta datu zehatzak erabili ohi ditu.
	3. Arazoa <b>aztertu</b>	1. Arazoaren eraginak ikuspegi orokor batetik aztertu ohi ditu. 2. Arazoaren zio kritikoak hauteman ohi ditu.
	4. <b>Beste irtenbide batzuk bilatu</b>	1. Hainbat irtenbide eman eta balizko arriskuak nahiz abantailak neurtu ohi ditu. 2. Aukerako irtenbideen artean egokiena hautatu dezake.
	5. <b>Jarduketa plana</b> aplikatu	1. Hautatutako irtenbidea aplikatzeko, jarduketa plana egin ohi du. 2. Jarduketa planaren jarraipena egin ohi du

### 2.5.3.- Nola landu

Ondoko hauen bidez:

- Arazoak ebatziz (*Problem Based Learning*, hots, Arazoetan Oinarritutako Ikasketa prozesuaren bidez)
- Kasu metodoa aplikatuz
- Proiektuak garatuz
- Taldean lan eginez
- Hobekuntza taldeak osatuz
- Ideia lehiaketak antolatuz, taldean edo ikastetxean egon daitezkeen egoerak zein arazoak ebazteko.

### 2.5.4.- Nola ebaluatu

Ondoko hauen bidez:

- Ikasgelan / tailerrean / laborategian ikasleen jokabidea behatuz
- Autoebaluazioaren bidez
- Bere gelakideen ebaluazioaren bidez

## 2.6. Ekintzaile izatea

### 2.6.1. Definizioa

Norberaren ekimenez proiektuak egitea, aukera bat sortzeko beharrezkoak diren baliabideak neurtuz eta horrek dakarren arriskua nork bere gain hartuz.

### 2.6.2. Elementuak eta ebaluazioa

<i>Klabeak diren gaitasunak</i>	<i>Ikasketa prozesuaren helburuak</i>	<i>Ebaluazio irizpideak</i>
Sortzeko grina	<b>1. Errealitateari aurre egin,</b> ekinez, arriskuak nahiz aukerak neurtuz eta ondorioak nork bere gain hartuz .	1. Autoestimu mailari esker (bere buruaz duen kontzeptu egokiari esker) aurrea har dezake. 2. Egokitzen zaizkion egoeretan, aurrea hartzen du modu autonomoan. 3. Arriskuak zein aukerak neurtu eta, ondoren, erabakiak hartzen ditu. 4. Bere erabakiek beste pertsonen gain izan ditzaketen ondorioak neurtzen ditu.
	<b>2. Besteak kontuan hartuta aurrea hartu,</b> besteei bere ikuspegiaren eta proiektuen berri emanez.	1. Inguruan dituenentzat aberasgarriak diren proiektuak sustatzen ditu. 2. Beste pertsona batzuk bere proiektuetan parte hartzera gonbidatzen ditu. 3. Proposatzen dituen proiektuen gaineko bere ikuspegiari beste pertsona batzuk sartzen ditu.
	<b>3. Konplexutasun handiko edo txikiko proiektuei ekin.</b>	1. Proiektuak martxan jartzen ditu. 2. Proiektuarekin konpromisoa hartzen du. 3. Proiektuari ahalegin iraunkorra eskaintzen dio. 4. Proiektu konplexuei ekiten die.

### 2.6.3.- Nola landu

Ondoko hauen bidez:

- Arazoak ebatziz (*Problem Based Learning* – AOI)
- SORMEN-CREA proiektuaren bidez
- Proiektuak garatuz
- Hobekuntza taldeen bidez
- URRATS-BAT edo antzerako sentsibilizazio jardueren bidez
- Egitasmoen bidez
- Gizartearen parte hartzea eskatzen duten eskolaz kanpoko jardueretan parte hartuz (GKEetan, elkarteetan, mugimendu sozialetan, hiritar mugimenduetan, aisialdiko taldeetan, eta abar)

### 2.6.4.- Nola ebaluatu

Ondoko hauen bidez:

- Ikasgelan / tailerrean / laborategian ikasleen jarduna behatuz
- Bere gelakideen ebaluazioaren bidez
- Proiektuak edo lanak ebaluatuz

## 2.7. Inguruari egokitzea

### 2.7.1. Definizioa

Inguru aldakorraren egoera kritikoei aurre egitea (aldaketa teknologikoak, antolakuntzako aldaketak, eta abar), pertsonari eraginkortasunez jardutea ahalbidetuko dion oreka fisikoa eta mentala mantenduz.

### 2.7.2. Elementuak eta ebaluazioa

<i>Klabeak diren gaitasunak</i>	<i>Ikasketa prozesuaren helburuak</i>	<i>Ebaluazio irizpideak</i>
Inguruari egokitzea	1. Eraginkortasunez jardun, <b>inguru aldakorrari</b> egokituz.	1. Atazak egiteko epe eta helburu zehatzak ezartzen dizkio bere buruari; lehentasunak zehazten ditu; bere agenda antolatzen du; bere lanaren kalitatea kontrolpean du; lanak epearen barruan entregatzen ditu. 2. Pertsoneri eta egoerei ez die uzten bere lehentasunak zapuzten. 3. Behar berriak sortzean aldaketak egiten ditu.
	2. <b>Dinamismoa eta energia mantendu</b> , denboragatik, desadostasunengatik, zailtasunengatik eta aldaketengatik sor litezkeen presio egoeratan lanean jarraitzeko.	1. Lanei denbora eta dedikazioa eskaintzen dizkie. 2. Frustrazioen aurrean ez du amore ematen, ez da blokeatzen. 3. Helburuak betetzeko bide bat baino gehiago aurkitzen du.
	3. Inguru eta egoera berrietan <b>erronkei aurre egitea</b> , eraginkortasun maila asaldatu gabe.	1. Egoera zailen edo berrien aurrean irmo eta saiatuta dihardu. Egoera berriak erronka moduan hartzen ditu. 2. Xedeak betetzea galarazten dioten oztopo berrien aurrean arretaz jokatzeko du. 3. Aldi berean hainbat lan kudeatzeko gai da. Gainera, lanen bilakaera kontrolatzeko hainbat mekanismo ezartzen ditu.

### 2.7.3.- Nola landu

Ondoko hauen bidez:

- Arazoak ebatziz (*Problem Based Learning* – AOI)
- Proiektuak / lanak ebaluatuz
- Gizartearen parte hartzeri buruzko jarduerak gauzatuz

### 2.7.4.- Nola ebaluatu

Ondoko hauen bidez:

- Ikasgelan / tailerrean / laborategian ikasleen jokabidea behatuz
- Proiektuak / lanak ebaluatuz

## 2.8. Etengabeko ikaskuntzarenganako interesa

### 2.8.1.- Definizioa

Bizitza osoan ikasi beharra modu positiboan ikustea.

### 2.8.2.- Elementuak eta ebaluazioa

<i>Klabeak diren gaitasunak</i>	<i>Ikasketa prozesuaren emaitzak</i>	<i>Ebaluazio irizpideak</i>
Etengabeko ikaskuntzarenganako interesa	1- Ikaskuntzaren aurrean <b>jarrera aktiboa</b> agertu	1- Badaki etengabeko ikaskuntza / egunean egotea funtsezkoa dela. 2- Modu diziplinatuan praktikan jartzen ditu ikasteko estrategiak eta teknikak. 3- Ikasketa prozesuaren helburuak ezartzen eta iragankortzen ditu. 4- Etengabeko prestakuntza nahiz garapen profesionala kudeatzeko asmoa du.
	2- Heziketarako / ikasketa prozesurako <b>baliabide egokiak bilatu eta erabili</b>	1- Gaur egungo informazioa eta baliabide garrantzitsuak bilatzen ditu. 2- Baliabide horiek bere jakintza eguneratzeko aprobetxatzen ditu.

### 2.8.3.- Nola landu

Ondoko hauen bidez:

- E-learning medio (webquest-ak, Moodle, eta abar)
- Ikerketa dokumentalaren bidez, mapping-a (laburpena)
- Hobekuntza taldeak sortuz
- Ikasleei ekiteko aukera emanez.

### 2.8.4.- Nola ebaluatu

Ondoko hauen bidez:

- Ikasgelan / tailerrean / laborategian ikasleen jarrera behatuz
- Autoebaluazioaren bidez
- Ikasleak ekimen propioz egin dituen aparteko lanak ebaluatuz.
- Hautatutako eta erabilitako hezkuntza baliabideen egokitzapena eta kalitatea baloratuz

## 2.9. Laneko arriskuak prebenitzea

### 2.9.1.- Definizioa

Ekoizpen prozesu bati edo zerbitzu bati loturik dauden arriskuak nahiz galzoriak kontrolatu, ebaluatu eta identifikatu.

### 2.9.2.- Elementuak eta ebaluazioa

<i>Klabeak diren gaitasunak</i>	<i>Ikasketa prozesuaren helburuak</i>	<i>Ebaluazio irizpideak</i>
Laneko arriskuak prebenitu	1- Arrisku egoera <b>hauteman</b>	1.- Arriskuaz ohartarazten gaituzten piktogramak zuzen interpretatzen ditu. 2.- Egoera arriskutsuak eta arriskutsuak ez direnak bereizi ditzake.
	2- Arrisku egoera <b>ebalatu</b>	1.- Badaki zer egin behar duen arrisku handiko egoera batean.
	3- Arrisku egoera <b>kontrolatu</b>	1.- Arrisku egoeren aurrean jokabide egokia hartzen du.
	4- Arriskuak <b>prebenitu</b>	1.- Laneko elementuen segurtasun neurriak errespetatzen ditu (taldekoa). 2.- Banakako babes ekipamendua erabiltzen du. 3- Arrisku egoerak gertatu aurretik babes neurriak iradoki ohi ditu.

### 2.9.3.- Nola landu

Ondoko hauen bidez:

- Kasu metodoaren bidez (hainbat arrisku egoerei buruzko bideoak ikusi, egoera horiek zer arrisku dakarten aztertu, zer prebentzio neurri har ditzakegun azaldu, arriskuak prebenitzeko elementuak barne hartzen dituen zerbitzua edo ekoizpen prozesua simulatu...).
- Hobekuntza taldeen bidez.
- Kanpoko eragileekin elkarlanean egindako sentsibilizazio jardueren bidez.

### 2.9.4.- Nola ebaluatu

Ondoko hauen bidez:

- Ikasgelan / tailerrean / laborategian ikasleen jokabidea behatuz.
- Ebaluazio akademikoaren bidez edukiak zein mailatan barneratu diren neurtuz.

## 2.10. Berrikuntza

### 2.10.1.- Definizioa

Prozesuetan edota emaitzetan elementu berriak sartu eta zenbait behar ase.

### 2.10.2.- Elementuak eta ebaluazioa

<i>Klabeak diren gaitasunak</i>	<i>Ikasketa prozesuaren helburuak</i>	<i>Ebaluazio irizpideak</i>
Berrikuntza	1- <b>Hobetu</b> beharreko egoerak <b>edo ase ez diren beharrak hauteman</b>	1.- Prozesuetan, metodoetan edo produktuetan mugak edo ahuleziak hauteman ditzake.
	2- Metodo, irtenbide edo produktu berriak <b>bilatu</b>	1.- Gauzak egiteko modu berrien edo produktu berrien gain hausnartzen du. 2- Beste irtenbide batzuk proposatu eta probatzen ditu.
	3- Metodo edo produktu berriak <b>garatu</b>	1.- Metodo edo produktu berriak sortzen ditu 2- Metodo edo produktu berriaren inpaktua balioetsi ohi du.

### 2.10.3.- Nola landu

Ondoko hauen bidez:

- Arazoak ebatziz (*Problem Based Learning – AOI*); hainbat irtenbide posible dituzten arazoak mahai gainean jarritz.
- Kasu metodoaren bidez.
- Proiektuak garatuz.
- Taldean lan eginez.
- Ikastetxeko / ikasgelako arazoaren konponbidea bilatzeko tresna sortzaileak erabiltzea sustatuko duten hobekuntza taldeen bidez.
- Ideia lehiaketak antolatuz, taldean edo ikastetxean egon daitezkeen egoerak zein arazoak ebazteko.
- Ideiak edo lanak balioesteko orduan, berrikuntza maila neurtuz.
- ...

### 2.10.4.- Nola ebaluatu

Ondoko hauen bidez:

- Ikasgelan ikasleen jokabidea behatuz
- Aurkitutako balizko irtenbideen bereizketa maila
- ...

## 2.11. Klabeak diren gaitasunak eta ikasketa prozesuaren emaitzak

## IKUSPEGI OROKORRA: Lanbide Heziketan klabeak diren gaitasunak: ikasketa prozesuaren helburuak

GAITASUNAK	IKASKETA PROZESUAREN HELBURUAK				
1.- Nork bere kasa ikastea	1- Heziketarako /ikasketa prozesurako baliabide egokiak <b>bilatu</b>	2- Informazioa <b>antolatu</b> eta <b>lehenetsi</b> .	3- <b>Modu autonomoan</b> bere ikasketa prozesua <b>antolatu</b> .	4- <b>Modu aberasgarrian</b> ikasi	
2.- Egokiro komunikatzea	1- <b>Entzute</b> aktiboaz baliatu	2- Nork bere burua <b>adierazi</b> (hizlariari buruz pentsatzen duena argi esatea / hizlaria mindu gabe)	3- <b>Feed-backa</b> erabili (berrelikadura)	4- Elkarriketa eraikitzailearen aldeko <b>giroa</b> sortzen lagundu	5- Egoerari zein hizlariei <b>egokitu</b> ahozkoa nahiz ahozkoa ez den komunikazioa
3- Taldean lan egitea	1. Taldearen <b>kohesioa</b> sustatu.	2. Taldeko lana <b>planifikatu</b> (eta koordinatu)	3. Lana taldean <b>egin</b>	4. Taldeko lana <b>ebalatu</b>	
4.- Gatazkak prebenitzea eta gainditzea	1.- Gatazka <b>prebenitu</b> eta gutxitu	2.- Gatazkaren egoera <b>aztertu eta ulertu</b>	3.- Bere burua <b>adierazi</b>	4.- <b>Entzute</b> aktiboaz baliatu	5.- Gatazkaren aurrean beste aukera batzuk eta <b>irtenbide onargarriak</b> bilatu
5- Arazoak gainditzea	1. Arazoa <b>hauteman</b>	2. Arazoa <b>definitu</b> (informazioa bildu)	3. Arazoa <b>aztertu</b>	4. <b>Beste irtenbide batzuk bilatu</b>	5. <b>Jarduketa plana</b> aplikatu
6- Ekintzaile izatea	1. <b>Errealitateari aurre egin</b> ekinez, arriskuak nahiz aukerak neurtuz eta ondorioen erantzukizuna nork bere gain hartuz	2. Besteak kontuan hartuta <b>aurrea hartu</b> , besteek bere ikuspegiaren eta proiektuen berri emanez	3. Konplexutasun handiko edo txikiko <b>proiektuei ekin</b>		
7- Inguruari egokitzea	1. Eraginkortasunez jardun, <b>inguru aldakorrari</b> egokitu.	2. <b>Dinamismoa eta energia mantendu</b> , denboragatik, desadostasunengatik, zailtasunengatik eta aldaketengatik sor litezkeen presio egoeratan lanean jarraitzeko	3. Inguru eta egoera berrietan <b>erronkei aurre egin</b> , beren eraginkortasun maila asaldatu gabe.		
8- Etengabeko ikaskuntzarenaganako interesa	1- Ikaskuntzaren aurrean <b>jarrera aktiboa</b> agertu	2- Heziketarako / ikasketa prozesurako <b>baliabide egokiak bilatu eta erabili</b>			
9- Laneko arriskuak prebenitzea	1- Arrisku egoera <b>hauteman</b>	2- Arrisku egoera <b>ebalatu</b>	3- Arrisku egoera <b>kontrolatu</b>	4- Arriskuak <b>prebenitu</b>	
10- Berrikuntza	1- <b>Hobetu</b> beharreko egoerak <b>edo asebate ez diren beharrak</b> hauteman	2- Metodo, irtenbide edo produktu berriak <b>bilatu</b>	3- Metodo edo produktu berriak <b>garatu</b>		

## 2.12. Klabeak diren gaitasunak, ikasketa prozesuaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak

### IKUSPEGI OROKORRA: Lanbide Heziketan klabeak diren gaitasunak

<b>Klabeak diren gaitasunak</b>	<b>Ikasketa prozesuaren helburuak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>
1.- Nork bere kasa ikastea	1- Heziketarako /ikasketa prozesurako <b>baliabide egokiak bilatu</b>	1.- Hainbat informazio iturri ezagutzen ditu. 2- Badaki zenbait informazio iturri erabiltzen.
	2- Informazioa <b>antolatu</b> eta <b>lehenetsi</b>	1.- Bildutako informazioa aztertu eta ikasketa prozesuko beharren arabera sailkatzen du.
	3- <b>Modu autonomoan</b> bere ikasketa prozesua <b>antolatu</b>	1.- Modu autonomoan kudeatu dezake bere ikasketa prozesua. 2- Ikasi nahi duenarekin bat datozen ikasketa teknikak erabiltzen ditu.
	4- <b>Modu aberasgarrian</b> ikasi	1- Ikasitakoa hainbat egoeratan balia dezake.
2.- Egokiro komunikatzea	1- <b>Entzute</b> aktiboaz baliatu	1- Isilik dago besteek hitz egiten dutenean eta ez du haien mintzoa eragozten. 2- Galderak egiten ditu hobeto ulertzeko. 3- Besteen ideien gaineko interesa agertzen du.
	2- Nork bere burua <b>adierazi</b> (hizlariari buruz pentsatzen duena argi esan / hizlaria mindu gabe)	1- Argi adierazten du pentsatzen duena, zintotasunez eta konplexurik gabe. 2- Eztabaidan aritzen da, besteak iraindu gabe eta bere burua mintzen utzi gabe.
	3- <b>Feed-backa</b> erabili (berrelikadura)	1- Adibide eta bestelako baliabide andana erabiltzen ditu egoera hobeto ulertarazteko. 2- Hizlariak faltan duena ikusi eta galdera egokiak egiten ditu berrelikadura errazteko. 3- Besteen ideiak barneratzen ditu.
	4- Elkarrizketa eraikitzailearen aldeko <b>giroa</b> sortzen lagundu	1- Ez du bere iritzia ezartzen kostata ala kostata; hizlaria errespetatu eta haren azalpenei adi dago. 2- Besteen lekuan jarri ohi da (enpatia). 3- Besteek parte hartzea ahalbidetu ohi du.
	5- Egoerari zein hizlariari ahozkoa nahiz ahozkoa ez den komunikazioa <b>egokitu</b>	1- Bere burua aurkezten du; ahozko mezuarekin nahiz egoerarekin bat datozen mugimenduak eta keinuak egin ohi ditu 2- Erabili dezakeen denbora kontrolatzen du. 3- Testuinguru bakoitzean egoki den komunikazio tresna erabiltzen du. 4- Ekarpen zehatzak egiten ditu ("harira doa").

<b>Klabeak diren gaitasunak</b>	<b>Ikasketa prozesuaren emaitzak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>
3- Taldean lan egitea	1. Taldearen <b>kohesioa</b> sustatu	1. Taldean ezarritako arauak onartzen ditu. 2. Taldekideekin harreman ona du ("kendu baino, ekarpenak egiten ditu").
	2. Taldeko lana <b>planifikatu</b> (eta koordinatu)	1. Helburuak eta zereginak proposatzen ditu. 2. Plangintzan parte hartzen du (ekintzak, tenporalizazioa, baliabideak). 3. Laneko helbururen baten ardura hartu ohi du bere gain. 4. Helburua lortze aldera, taldeko kideen ahaleginak bateratzen ditu.
	3. Lana taldean <b>egin</b>	1. Esleitu dizkioten atazak egiten ditu. 2. Epeak betetzen ditu. 3. Esleitutako zereginen ezaugarriak betetzen ditu (kalitatea). 4. Taldeari ezagutzak, esperientzia,... ekartzen dizkio.
	4. Taldeko lana <b>ebalatu</b>	1. Modu erakitzailean aztertzen du taldearen jokabidearen eta lortutako emaitzen arteko harremana. 2. Prozesua betetzeko eta emaitzak lortzeko zein ekarpen egin duen ebaluatzen du.
4.- Gatazkak prebenitzea eta gainditzea	1.- Gatazka <b>prebenitu</b> eta gutxitu	1.- Gatazken iturri izan daitezkeen egoerak hautematen ditu. 2.- Egoera horiek sortzea saihesten du.
	2.- Gatazkaren egoera <b>aztertu eta ulertu</b>	1.- Gatazkaren gain hausnartzen du zer gertatzen ari den ulertzeko.
	3.- Bere burua <b>adierazi</b>	1- Argi adierazten du pentsatzen duena, zintotasunez eta konplexurik gabe. 2- Eztabaidan aritzen da, besteak mindu gabe eta bere burua iraintzen utzi gabe.
	4.- <b>Entzuketa</b> aktiboa baliatu	1- Isilik dago besteek hitz egiten dutenean eta ez du haien mintzoa eragozten. 2- Galderak egiten ditu hobe ulertzeko. 3- Besteen ideenganako interesa agertzen du.
	5.- Gatazkaren aurrean beste aukera batzuk eta <b>irtenbide onargarriak</b> bilatu	1.- Besteen proposamenak ondo hartzen ditu eta, adostasunaren mesedean, zenbait alderditan amore ematen du. 2.- Jarrera desberdinak bateratzen eta adosten saiatzen da, taldekide guztientzako zuzenak diren akordioak lortzeko. 3. Zenbait irtenbide proposatzen ditu.
5- Arazoak gainditzea	1. Arazoa <b>hauteman</b>	1. Arazoa zer den eta zer ez hauteman dezake. 2. Arazo zailak zatikatu egiten ditu eta lantzeko errazagoak diren partetan banatu.
	2. Arazoa <b>definitu</b> (informazioa bildu)	1. Arazoa zehazteko, adi egon ohi da, irakurri ohi du edo galderak egiten ditu. 2. Hainbat iturri alderatu eta datu zehatzak erabiltzen ditu.
	3. Arazoa <b>aztertu</b>	1. Arazoaren eraginak ikuspegi orokor batetik aztertzen ditu. 2. Arazoaren zio kritikoak hautematen ditu.
	4. <b>Beste irtenbide batzuk bilatu</b>	1. Hainbat irtenbide eman eta balizko arriskuak nahiz abantailak neurtzen ditu. 2. Aukerako irtenbideen artean egokiena hautatzen dezake.
	5. <b>Jarduketa plana</b> aplikatu	1. Hautatutako irtenbidea aplikatzeko, jarduketa plana egiten du. 2. Jarduketa planaren jarraipena egiten du.

<b><i>Klabeak diren gaitasunak</i></b>	<b><i>Ikasketa prozesuaren helburuak</i></b>	<b><i>Ebaluazio irizpideak</i></b>
6- Ekintzaile izatea	1. <b>Errealitateari aurre egin</b> ; ekinez, arriskuak nahiz aukerak neurtuz eta ondorioak nork bere gain hartuz	1. Autoestimu mailari esker (bere buruaz duen kontzeptu egokiari esker) aurrea har dezake. 2. Egokitzen zaizkion egoeretan, aurrea hartzen du modu autonomoan. 3. Arriskuak zein aukerak neurtu eta, ondoren, erabakiak hartzen ditu. 4. Bere erabakiek beste pertsonen gain izan ditzaketan ondorioak neurtzen ditu.
	2. Besteak kontuan hartuta <b>aurrea hartu</b> , besteei bere ikuspegiaren eta proiektuen berri emanez	1. Inguruan dituenentzat aberasgarriak diren proiektuak sustatzen ditu. 2. Beste pertsona batzuk bere proiektuetan parte hartzera gonbidatzen ditu. 3. Proposatzen dituen proiektuen gaineko bere ikuspegian beste pertsona batzuk sartzen ditu.
	3. Konplexutasun handiko edo txikiko <b>proiektuei ekin</b>	1. Proiektuak martxan jartzen ditu 2. Proiektuarekin konpromisoa hartzen du. 3. Proiektuari ahalegin iraunkorra eskaintzen dio. 4. Proiektu konplexuei ekiten die.
7- Inguruari egokitzea	1. Eraginkortasunez jardun, <b>inguru aldakorrari</b> egokituz.	1. Atazak egiteko epe eta helburu zehatzak ezartzen dizkio bere buruari; lehentasunak zehazten ditu; bere agenda antolatzen du; bere lanaren kalitatea kontrolpean izaten du; lanak epearen barruan entregaten ditu. 2. Pertsoneri eta egoerei ez die uzten bere lehentasunak zapuzten. 3. Behar berriak sortzean aldatetako egiten ditu.
	2. <b>Dinamismoa eta energia mantendu</b> , denboragatik, desadostasunengatik, zailtasunengatik eta aldatetengatik sor litezkeen presio egoeratan lanean jarraitzeko	1. Lanei denbora eta dedikazioa eskaintzen die, etenik gabe. 2. Frustrazioen aurrean ez du amore ematen, ez da blokeatzen. 3. Helburuak betetzeko bide bat baino gehiago aurkitzen du.
	3. Inguru eta egoera berrietan <b>erronkei aurre egin</b> , beren eraginkortasun maila asaldatu gabe.	1. Egoera zailen edo berrien aurrean irmo eta kementsu dihardu, eta erronka moduan hartzen ditu. 2. Xedeak betetzea galarazten dioten oztopo berrien aurrean arretaz jokatzeko du. 3. Aldi berean hainbat lan kudeatzeko gai da. Gainera, lanen bilakaera kontrolatzeko hainbat mekanismo ezartzen ditu.
8- Etengabeko ikaskuntzarengako interesa	1- Ikaskuntzaren aurrean <b>jarrera aktiboa</b> agertu	1- Badaki etengabeko ikaskuntza / egunean egotea funtsezkoa dela. 2- Modu diziplinatuan praktikan jartzen ditu ikasteko estrategiak eta teknikak. 3- Ikasketa prozesuaren helburuak ezartzen eta iragankortzen ditu. 4- Etengabeko prestakuntza eta garapen profesionala kudeatzeko asmoa du.
	2- Heziketarako / ikasketa prozesurako <b>baliabide egokiak bilatu eta erabili</b>	1- Gaur egungo informazioa eta baliabide garrantzitsuak bilatzen ditu. 2- Baliabide horiek bere jakintza eguneratzeko aprobetxatzen ditu.

<b><i>Klabeak diren gaitasunak</i></b>	<b><i>Ikasketa prozesuaren helburuak</i></b>	<b><i>Ebaluazio irizpideak</i></b>
9- Laneko arriskuak prebenitzea	1- Arrisku egoera <b>hauteman</b>	1.- Arriskuaz ohartarazten gaituzten piktogramak zuzen interpretatzen ditu. 2.- Egoera arriskutsuak eta arriskutsuak ez direnak bereizi ditzake.
	2- Arrisku egoera <b>ebaluatu</b>	1.- Badaki zer egin behar duen arrisku handiko egoera batean.
	3- Arrisku egoera <b>kontrolatu</b>	1.- Arrisku egoeren aurrean jokabide egokia hartzen du.
	4- Arriskuak <b>prebenitu</b>	1.- Laneko elementuen segurtasun neurriak errespetatzen ditu (taldekoa). 2.- Banakako babes ekipamendua baliatzen du. 3- Arrisku egoerak gertatu aurretik babes neurriak iradokiten ditu.
10- Berrikuntza	1- <b>Hobetu</b> beharreko egoerak <b>edo asebeten ez diren beharrak hauteman</b>	1.- Prozesuetan, metodoetan edo produktuetan mugak edo ahuleziak hauteman ditzake.
	2- Metodo, irtenbide edo produktu berriak <b>bilatu</b>	1.- Gauzak egiteko modu berrien edo produktu berrien gain hausnartzen du. 2- Beste irtenbide batzuk proposatu eta probatzen ditu.
	3- Metodo edo produktu berriak <b>garatu</b>	1.- Metodo edo produktu berriak sortzen ditu 2- Metodo edo produktu berriaren inpaktua balioetsi ohi du.

Hautatu ditugun 10 gaitasunei lotuta, ikasketa prozesuaren 38 helburu eta 92 ebaluazio irizpide ikusi ditugu guztira.

### 3.- Gaitasun horiek lantzeko hainbat argibide

Ondoko taulan, 10 gaitasunak lantzeko bideen laburpena jaso dugu.

#### 3.1. Klabeak diren gaitasunak eta gaitasun horiek lantzeko hainbat modu

##### IKUSPEGI OROKORRA: Lanbide Heziketan klabeak diren gaitasunak eta gaitasun horiek lantzeko modua

GAITASUNAK	GAITASUNAK LANTZEKO ZENBAIT MODU								
	Problemak ebatzi (PBL – AOI, Sormen-CREA...)	Kasu metodoa (bideoak ikusi, simulazioak, ...)	Proiektuak garatu	E-learning (webquestak, Moodle, eta abar)	Ikerketa dokumentala; mapping-a (laburpena)	Taldean lan egin	Hobekuntza taldeak	Jendurrean aurkezpenak egitea (aurkezpenak grabatu, adibidez)	Gizartean parte hartzea: Ideia lehiaketak, taldean edo ikastetxean bizi daitezkeen zenbait arazo edo egoera ebazte aldera; sentsibilizazio jarduerak; URRATS-BAT; arriskuen prebentzioa...
1.- Nork bere kasa ikastea	X			X	X				
2.- Egokiro komunikatzea	X	X	X			X		X	
3- Taldean lan egitea	X	X	X			X	X	X	X
4.- Gatazkak prebenitzea eta gainditzea	X	X	X			X	X		X
5- Arazoak ebaztea	X	X	X			X	X		X
6- Ekintzaile izatea	X		X				X		X
7- Inguruari egokitzea	X		X						X
8- Etengabeko ikaskuntzaren ganako interesa				X	X		X		
9- Laneko arriskuak prebenitzea		X					X		X
10- Berrikuntza	X	X	X			X	X		X

#### 4.- Gaitasun horiek ebaluatzeko hainbat argibide

Ondoko taulan, gaitasunak ebaluatzeko moduen laburpena jaso dugu.

##### 4.1. Klabeak diren gaitasunak eta gaitasun horiek ebaluatzeko hainbat modu

#### IKUSPEGI OROKORRA: Lanbide Heziketan klabeak diren gaitasunak eta gaitasun horiek ebaluatzeko hainbat modu

GAITASUNAK	GAITASUNAK EBALUATZEKO ZENBAIT MODU					
	Ikasgelan / tailerlean / laborategian behatuz	Autoebaluazioaren bidez	Bere gelakideen ebaluazioaren bidez	Proiektuak / lanak ebaluatuz	Ebaluazio akademikoaren bidez, edukiak zein mailatan barneratu diren neurtuz	Beste batzuk
1.- Nork bere kasa ikastea	X				X	
2.- Egokiro komunikatzea	X	X	X			
3- Taldean lan egitea	X	X	X	X		
4.- Gatazkak prebenitzea eta gainditzea	X	X	X			
5- Arazoak gainditzea	X	X	X			
6- Ekintzaile izatea	X		X	X		
7- Inguruari egokitzea	X			X		
8- Etengabeko ikaskuntzarekiko interesa	X	X				- Ikasleak ekimen propioz egin duen aparteko lana ebaluatuz. - Hautatu eta erabili dituen hezkuntza baliabideen egokitzapena eta kalitatea baloratuz
9- Laneko arriskuak prebenitzea	X				X	
10- Berrikuntza	X					Aurkitutako balizko irtenbideen bereizketa maila

#### **4.2. Ebaluazio prozesurako hainbat iradokizun**

Gure aburuz, ziklo bakoitzean garatu nahi diren funtsezko gaitasunen arabera, ikastetxeek hainbat ebaluaketa egin ditzakete:

- 1. ebaluazioa: ikasgelako irakasleek lehen ebaluaketa amaitzean (azaroan) ikasleen funtsezko gaitasunak ebaluatu daitezke.
- Tarteko ebaluaketa: lehenengo maila amaitzean gaitasun horiek ebaluatu daitezke.
- Azken ebaluazioa: zikloa amaitzean, LP modulua egin ondoren edo, goi mailako heziketa zikloetako ikasleen kasuan proiektua egin eta gero, irakasleek mintzagai ditugun gaitasunak ebaluatu behar dituzte.